Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

**Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako Departamentuaren indarreko aurrekontuak hura egiteko hartutako irizpideekin alderatuta dituen desberdintasun esanguratsuenak azaltzen dituen txostena.**

Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak berriro finkatzen dituen irailaren 30eko 7/2024 Foru Dekretuaren arabera, Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako Departamentuari jardun-arlo eta eginkizun hauek dagozkio:

a) Errepide sarea planifikatzea

b) Lurraldeko errepide sarea eraiki, artatu eta ustiatzea.

c) Bizikleta bideen azpiegituraren arloan:

— Errepideak eraikitzeko proiektuetan sartuta dauden bizikleta bideen azpiegiturak eraikitzea, horien trazatua errepidearen plataforma ondotik doanean.

— Jasangarritasun Departamentuaren arabera beharrezkotzat jotzen diren proiektuak idaztea eta bizikleta bide berriak egitea.

— Gipuzkoako Foru Bizikleta Bideen Sarearen Katalogoaren barruan dauden bizikleta bideen sarearen ohiko artatze lanak gauzatzea, eta sare hori zaintzea nahiz ustiatzea.

d) Lurralde Estrategia.

e) Indarrean diren arauetan esleitzen zaizkion gainerako eskumenak.

2026ko ekitaldirako aurrekontua egitean, lurralde estrategiari eta mugaz gaindiko ekintzari

**Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Departamento de Infraestructuras Viarias y Estrategia Territorial respecto al vigente y los criterios adoptados en su elaboración.**

De acuerdo con el Decreto Foral 7/2024, de 30 de septiembre, de nueva determinación de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y de sus áreas de actuación y funciones, al Departamento de Infraestructuras Viarias y Estrategia Territorial le corresponden las siguientes áreas de actuación y funciones:

a) Planificación de la Red de Carreteras

b) Construcción, conservación y explotación de la red viaria del territorio.

c) En materia de infraestructuras de vías ciclistas:

— Construcción de las infraestructuras de vías ciclistas integradas en proyectos de construcción de carreteras, o cuando su trazado sea contiguo a la plataforma de la carretera.

— Redacción de proyectos y construcción de aquellas vías ciclistas de nueva construcción que de acuerdo con el Departamento de Sostenibilidad así se considere.

— Mantenimiento, conservación, vigilancia y explotación de la red de vías ciclistas incluidas en el Catálogo de la Red de Vías Ciclistas Forales de Gipuzkoa.

d) Estrategia Territorial.

e) Las demás facultades que se le atribuyan por la normativa aplicable.

En la elaboración del presupuesto para el ejercicio 2026, en lo que concierne a la

dagokienez, behar diren kredituak sartu dira lurraldeko udalerriekiko ekintza sendotzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren helburuak eta plan estrategikoa babesteko eta mugaz gaindiko lankidetza garatzeko eta garatutako ekintzei balioa emateko.

estrategia territorial y acción transfronteriza, se han incluido los créditos correspondientes para fortalecer la acción con los municipios del territorio, el apoyo a los objetivos y plan estratégico de la Diputación Foral de Gipuzkoa y las dinámicas para desarrollar la cooperación transfronteriza y valorizar las acciones desarrolladas.

Errepideei eta bizikleta bideei dagokienez, Foru Aldundiaren errepide eta bizikleta sarearen mantentzea, artapena eta ustiaketa modu eraginkorrean burutzeko irizpidea lehenesten jarraitu da. Nolanahi ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepide sareari dagokionez, hobekuntza proiektu jakin batzuei zein garrantzi txikiagoko jarduketei ekin ahal izan zaie.

En lo que concierne a las carreteras y vías ciclistas se ha continuado con el criterio de priorizar el mantenimiento, conservación y explotación de la red de carreteras y vías ciclistas de la Diputación Foral de una manera eficiente, sin perjuicio de abordar, en relación con la red de carreteras de la Diputación Foral de Gipuzkoa, tanto determinados proyectos de mejora, como actuaciones de menor entidad.

Ohiko artapenerako errepideak zaintzeko 100. programan, ordainketa kredituak mantendu egiten dira, zerbitzuaren kalitatea eta segurtasuna mantentzeko eta hobetzeko.

En el programa 100, de conservación de carreteras, los créditos de pago destinados a gastos de conservación ordinaria se mantienen, a fin de mantener y mejorar la calidad del servicio y la seguridad.

Programa horren ondorioetarako, garrantzitsuak dira tuneletako ekipamendua Europako zuzentarauaren eskakizunetara egokitzeko jarduketak; 2026an zuzkidura izango dute, urte horretan amaituko baitira 2018an hasitako jarduketak. Era berean, aipatzekoak dira bide segurtasuneko jarduketak eta foru sareko errepideen inguruan bide segurtasuna hobetzeko udalerri txikiei zuzendutako dirulaguntzen lerroa, bai eta foru sareko errepideetan Gipuzkoa Living Lab zabaltzera bideratutako aurrekontu partidak ere. Proiektu horrek mugikortasun seguru, jasangarri, adimendun eta konektatuaren abangoardian jarriko du Gipuzkoa.

Son relevantes, a efectos de este programa, las actuaciones para la adaptación del equipamiento en túneles a las exigencias de la directiva europea, con dotaciones para el año 2026, año en el concluirán las actuaciones iniciadas en el año 2018. Asimismo, cabe destacar las actuaciones de seguridad vial y la línea de subvenciones destinada a municipios pequeños para mejorar la seguridad vial en el entono de las carreteras de la red foral, así como las partidas presupuestarias destinadas al despliegue del Gipuzkoa Living Lab en las carreteras de la red foral, un proyecto que situará a Gipuzkoa a la vanguardia de la movilidad segura, sostenible, inteligente y conectada.

110. programari dagokionez (errepideak eraiki eta hobetzea), helburu horretara bideratutako ordainketa kredituak proiektu hauekin jarraitzeko erabiliko dira nagusiki: batetik, GI-631 errepidea

En lo que concierne al programa 110, de construcción y mejora de carreteras, los créditos de pago destinados para tal fin, se destinan principalmente a continuar con las actuaciones del

hobetzeko proiektua, 22,950 eta 24,400 KPen arteko aurreratze tartea (Azkoitia-Urretxu) eta, bestetik, Zarauzko saihesbidearen proiektua; beste garraiobide batzuekiko segurtasunari eta bizikidetzari lotutako hobekuntza lokalizatuak egiteko ere erabiliko da.

Era berean, jarduera hauek finantzatzera bideratutako etorkizuneko kredituen garrantzia azpimarratu behar da: 22,950 eta 24,400 KPen (Azkoitia-Urretxu) arteko aurreratze tartea, Zarauzko saihesbidea, GI-631 errepidea hobetzea, Adunako ibarreko errepidea hobetzea, Bidasoaldeko ibilgailuen mugikortasuna hobetzea eta Lezoko GI-636 errepidea hobetzeko jarduketak.

Azkenik, Premiazko Inbertsioei, Prebentzioari eta Konponketari buruzko 120. programan, errepideen eta bizikleta bideen prebentziozko kontserbazioari dagozkion ordainketa kredituak jaso dira, emaitza oso onak ematen ari den zorua birgaitzen jarraitzeko, lerradurak eta ezpondak egonkortzeko, egiturak birgaitzeko eta zarataren aurkako jarduketei ekiteko, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera onartutako mapa estrategikoen eta ekintza-planeko aurreikuspenen arabera.

Aipatu behar da Bidegi SAren kargura finantzatuko direla zati batean, Gipuzkoako A-15 eta N-I errepideetan merkantziak garraiatzeko ibilgailu astunen erabileragatiko kanona ezartzeari buruzko abenduaren 3ko 5/2021 Foru Arauaren onarpenaren ondorioz kanona ordaindu behar duten N-I eta A-15 errepideei dagozkien artapen arrunteko gastuak eta jarduketetako gastuak.

proyecto de mejora de la carretera GI-631; tramo de adelantamiento entre el PK 22,950 y el PK 24,400 (Azkoitia – Urretxu) y del proyecto de la variante de Zarautz, así como a mejoras localizadas ligadas a la seguridad y convivencia con otros medios de transporte.

Asimismo, cabe reseñar la relevancia de los créditos de futuros destinados a financiar las actuaciones correspondientes al tramo de adelantamiento entre el PK 22,950 y el PK 24,400 (Azkoitia – Urretxu), a la variante de Zarautz, a la mejora de la carretera GI-631, a la mejora de la carretera de la vega de Aduna, a la mejora de la movilidad rodada en Bidasoaldea, y las actuaciones de mejora de la GI-636 en Lezo.

Finalmente, en el programa 120 de Inversiones Urgentes, Prevención y Reparación, se contemplan los créditos de pago correspondientes a la conservación preventiva de las carreteras y vías ciclistas, a fin de continuar con la rehabilitación del firme que está dando muy buenos resultados, estabilizar deslizamientos y taludes, rehabilitar estructuras y abordar actuaciones antiruido de acuerdo con los mapas estratégicos y las previsiones del plan de acción aprobados de acuerdo con lo establecido en la Ley 37/2003, de 17 de noviembre, del Ruido y en el Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Hay que señalar, que los gastos de conservación ordinaria y de las actuaciones correspondientes a las carreteras N-I y A-15, que están sometidas a pago de canon a consecuencia de la aprobación de la Norma Foral 5/2021, de 3 de diciembre, de implantación de un canon por uso para los vehículos pesados de transporte de mercancías en las carreteras A-15 y N-I en Gipuzkoa, se financiarán en parte con cargo a Bidegi, SA..

08 Departamentua BIDE AZPIEGITURETAKO ETA LURRALDE ESTRATEGIAKO DEPARTAMENTUA/
Departamento 08 DEPARTAMENTO DE INFRAESTRUCTURAS VIARIAS Y ESTRATEGIA TERRITORIAL

(Mila eurokotan/Miles de euros)

| Programak<br>Programas | LANGILEAREN GASTUAK<br>1<br>GASTOS DE PERSONAL | ONDASUN ETA SERB.OHIKO<br>2<br>GTOS.CTES. BIEN.Y SERV | FINANTZA GASTUAK<br>3<br>GASTOS FINANCIEROS | TRANSFER. ARRUNTAK<br>4<br>TRANSFER. CORRIENTES | KONTINGENT. EZUSTEKOAK<br>5<br>CONTINGENC. IMPREVISTOS | INBERTSIO ERREALAK<br>6<br>INVERSIONES REALES | KAPITAL TRANSFER.<br>7<br>TRANSFER. DE CAPITAL | FINANTZA AKTIBOAK<br>8<br>ACTIVOS FINANCIEROS | FINANTZA PASIBOAK<br>9<br>PASIVOS FINANCIEROS | AURREKONTUA GUZTIRA<br><br>TOTAL PRESUPUESTO |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 01. Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako Zerb<br>Servicios Generales de Infraestructuras Viarias y Est | 1.206,16 | 3.910,80 | | | | 477,29 | | | | 5.594,24 |
| 02. Lurralde Estrategia eta Mugaz Gaindiko Ekintza/<br>Estrategia Territorial y Acción Transfronteriza | 199,70 | 554,82 | | 1.449,00 | | 1.100,00 | 300,00 | | | 3.603,52 |
| 10. Errepideak Artatzea/<br>Conservación de Carreteras | 4.614,04 | 4.465,98 | | | | 57.557,72 | 471,58 | | | 67.109,32 |
| 11. Errepideen Eraikuntza eta Hobekuntza/<br>Construcción y Mejora de Carreteras | 1.024,09 | 62,20 | | | | 19.425,31 | | | | 20.511,60 |
| 12. Presazko Inbertsioak, Prebentzioa eta Konponketak/<br>Inversiones Urgentes, Prevención y Reparación | 1.299,71 | 837,13 | | | | 18.306,05 | | | | 20.442,89 |
| 20. Kontratazioa, Plangintza eta Ustiapena/<br>Contratación, Planificación y Explotación | 1.253,93 | 82,12 | | | | | | | | 1.336,05 |
| **Departamentua Guztira<br>Total Departamento** | **9.597,64** | **9.913,05** | | **1.449,00** | | **96.866,37** | **771,58** | | | **118.597,64** |

